

TREBAKUNTZA 2020-03: DESBERDIN

Gaztelaniaren eraginez, asko ugartu dira “Herri desberdinetan aurkeztu zuten proiektua” edo “Herriko elkarte desberdinen erabakia izan da” erako esaldiak.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * Eskualdeko kultur eragile **desberdinek** sinatu dute agiria.
2. * Lau langile **desberdinek** esan dute greba egingo dutela asteartean.
3. * Bizkaiko herri **desberdinetan** arazoak izan dituzte uholdeekin.
- 4.* Lasterketa egunean, udaltzainek isunak jarri zizkieten herriko kale **desberdinetan** aparkaturik zeuden ibilgailuen jabeek.

AZALPENA ETA ZUZENKETAK

Euskaraz baditugu “desberdin” horren ordez erabiltzeko forma egokiak, eta kasu batzuetan, hitza bera kenduta ere esaldia ondo geratzen da.

1. Ad. Eskualdeko **zenbait/hainbat kultur eragilek** sinatu dute agiria.
2. Ad. **Lau langilek** esan dute greba egingo dutela asteartean.
3. Ad. Bizkaiko **herri batzuetan** arazoak izan dituzte uholdeekin.
Bizkaiko **zenbait herritan** arazoak izan dituzte uholdeekin.

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.eus

4. Ad. Lasterketa egunean, udaltzainek isunak jarri zizkieten herriko **kale batzuetan** aparkaturik zeuden ibilgailuen jabeek.

Lasterketa egunean, udaltzainek isunak jarri zizkieten herriko **zenbait kaletan** aparkaturik zeuden ibilgailuen jabeek.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699